


**VILLA ARMENONVILLE**  
D MAILA**MARTUTENE PASEALEKUA 2**

Augusto Agirre, 1902

**Deskribapena**

Plataforma baten gainean oinarrituta dago, eta beheko solairua, lehena eta estalki maldatsuaren peko bigarrena ditu, L formako oinplano batetik abiatuta. Bizitegi pintoreskoaren adibide berezia, udaldiko etxeen modatik ekarritako formak bere egin dituen. Dorrea da horrelako villen ezaugarrietako bat, eta kasu honetan gaztelu almenadunaren formara jo zuten, Erdi Aroko garitoen antzera. Dorre hori oinplano zirkularrekoa da, eta horma pikoak baino indar handiagoa du; azken hau, bere aldetik, bow window batez dago errematatuta. Egiaz, begiratoki horrek fazeta bitartez eratua du perimetroa, eraikuntza ahalbidetuz horrela, eta goiko balkoi bat dauka. Jatorrizko etxeak bi solairuko hegal erantsi bat du, teilazko estalki batez.

**D mailako babes erregimen espezifiko**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: alboan erantsitako atala.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezko elementuak, apaindura emokatuak eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.